

**LAN HITZARMENEN MAHAIAREN BERRIAK**

Joan den ostiralean, urtarrilak 25, EAeko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboaren negoziazio-mahaia bidu zen berriro. Bertan, AICE patronalak, aurreko bileran tutik ere ez esan zuenak, adierazi zuen Epategi Gorenearen sententziari buruzko iritzia eta esan zuen ez zutela "Incidente de Nulidad" aurkeztu baliabide ekonomiko ezagatik eta ez zegoelako arrakasta izateko aukerarik – edo oso txikia-, eta ez gogorik ez izateagatik. Alorreko lan-hitzarmenaren aldekoak direla adierazi zuten eta lansarien murrizketen ondoriozko zorrak ordaindu dituzten ikastetxeak hitzarmenentik at geratzearen aurka – aurreko bileran Kristau Eskolak adierazitakoa-agertu ziren. Hala ere, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ezarritako murrizketak jasotzen dituzten lansari taulak – Kristau Eskolak legez- aurkeztu zituen.

ELak argi utzi zuen negoziazioa hasteko ezinbestekoa dela aurretik lan-hitzarmena betetzea. Proposatu ziren 2010 eta 2011 zorrak kitatzea eta 2012koa kitatzeko epeak negoziatzea. Berriro ere, ultrakatibitate lotuko lukeen sektoreko hitzarmenaren alde agertu ziren, baina uste du - lan erreforma dela medio- beharrezkoa izango dela ikastexe bakoitzak berrestea. Halaber, ultrakaaktibitatea uztailaren 7tik aurrera bermatuko lukeen zatikako akordioa adostea proposatu zuen, hitzarmen berria lasaitasunez negoziatu ahal izateko.

CCOO-ek ere argi utzi zuen beharrezkoa dela legalitatea betetzea eta proposatu zuen 2010eko lansariak eguneratzea KPI aplikatuz. Gogoarazi zuen, puntuz puntu, 2010ean aurkeztutako plataforma eta ultraaktibitatea gordetzeko klausuladun hitzarmenaren aldeko apustua egin zuen.

STEE-EILASek aurkeztu zuen 2013ko negoziazio kolektiborako irizpideak finkatzen dituen dokumentua. Gure apustua da uztailaren 7a baino lehen 2013rako lan-hitzarmen berri bat lortzea (ezin zaio ixkin egin tribunal Gorenaten epaiari negoziazioaren bidez) edo, hori ezean, indarrean dagoena luzatu. Negoziarioari ekiteko Patronalek hitzarmena eta epaiak bete behar dituzte. Eskatzen dugu 2012ko abendura arte sortutako atzerapenak ordaintzea eta AZP-entzako %95eko lansarien homologazioa.

Garai berri honetan, Patronalek bereganatu beharko dute ezin dutela – aldebakarrez-langileen lan baldintzetan funtsezko aldaketarik egin eta langileen eskubideen zilezko ordezkarieta sindikatuei dagokiela. Gerora, azken bi urte eta erdian jardun duten ez bezala jardun beharko dute.

Horrez gain, argi daukagu Sektoreko lan-hitzarmenak jaso beharko lituzkeela lan-harremanak blindatzeko formula eraginkorrak, lan-erreformak eskaintzen dituen aukeren aurka. Aldi berean, eskaini genien sektoreko beste sindikatuei proposamen sindikal bateratua egitea.

LABek eskatu zuen urratsak ematea zorra kitatzeko eta patronal erakundeek aurkeztutako lansarien taulen aurka agertu zen.

Patronalek denbora eskatu zuten sindikatuen proposamenak aztertu eta erantzuna emateko. Hurrengo bilera otsailaren 13an izango da. Informazioa unean unean helaraziko dizuegu.

**Hezkuntzan STEE-EILAS**

**ARABA:** Eulogio Serdan, 5      01012 Gasteiz      ☎ 945 14 11 04      📠 945 14 43 02      [araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)      48003 Bilbao      ☎ 944 10 02 98      📠 944 10 13 60      [bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)      20015 Donostia      ☎ 943 46 60 00      📠 943 45 36 27      [gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)      31001 Iruñea      ☎ 948 21 23 55      📠 948 22 97 90      [nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)